

Distinción

Moda-argazkilaritzaren mende bat



Distinción

Moda-argazkilaritzaren mende bat

ERAKUSKETA. 2018/10/09 – 2019/01/27

Azken 100 urteetako panorama nazionaleko argazkilari garrantzitsuenen ehun argazki baino gehiago jasotzen ditu. Juan Gyenes, Oriol Maspons, Manel Esclusa, Maria Espeus, José Manuel Ferrater, Antoni Bernad, Manuel Outumuro, Bèla Adler & Salvador Fresneda, Txema Yeste, Eugenio Recuenco eta Sergi Jasanada argazkilarien lanak daude, besteak beste.

Cristóbal Balenciaga Museoak *Distinción. Moda-argazkilaritzako mende bat* erakusketa eskaintzen du, Bartzelonako Museu del Dissenyk (Bartzelonako Disinuaren Museoak) ekoitzia, Kataluniako museo horrek azken urteetan sortu duen moda-argazkilaritzako bildumaren zati garrantzitsu bat jarriz ikusgai. Erakusketa honek moda-argazkilaritzaren berezitasuna, originaltasuna eta eragina nabarmentzen ditu, gure bizitzako alderdi askotara zabaldua, 37 argazkilariren 107 argazkiren bitartez. Zer ezaugarri komun izan ditu moda-argazkilaritzak denboran zehar? Zer bilakaera izan du? Zergatik sortzen du hain lilura handia? Hori azaltzeko, Juan Naranjo komisarioak Distinció kontzeptua aukeratu du, zentzu bikoitza duena: dotoretasuna –modaren berezko ezaugarri bat– eta berezitasuna, abangoardia artistikoekin konektatzen duena. Modernismoaren garaitik –kalitate handiko paperean inprimatutako aldizkariak modeloen eta jantzien argazkiak argitaratzen hasi zirenean– gaur egungo bitarteko digitaletaraino: sedukzioa, probokazioa eta glamourra.

Gaien eta kronologiaren araberako ibilbidea eginez, moda-argazkilaritzaren, abangoardia artistikoen eta garai bakoitzeko eraldaketa sozialak bultzatzen dituzten pentsamendu korronteen arteko harremanak ikertzen ditu erakusketak. Erakusketa honen bidez, Cristóbal Balenciaga Museoak elkarren osagarri diren lengoiaia artistikoak harremanetan jartzen jarraitzeko asmoa du, eta, aldi berean, Balenciagaren figurarekiko eta garaiarekiko periferikoak diren beste testuinguru batzuk definitzen jarraitzekoa.

Kataluniako eta Espainiako moda-argazkilaritzako izen handiak daude erakusketan: Ramon Batlles, Camisans, Pere Casas Abarca, Compal, Josep Compté, Juan Gyenes, Hortolà, Jafer, Man, Antoni Ollé, Paul M. Pietzch, Josep Sala, Samuel Suñé, Adler & Fresneda, Pep Àvila, Antoni Bernad, Juana Biarnés, Alejandro Cabrera, Biel Capllonch, Ferran Casanova, Manel Esclusa, Maria Espeus, José Manuel Ferrater, Enric Galceran, Sergi Jasanada, Virgili Jubero, Oriol Maspons, Esperanza Moya, Xevi Muntané, Manuel Outumuro, Sergi Pons, Eugenio Recuenco, Daniel Riera, Carles Roig, César Segarra, Javier Vallhonrat eta Txema Yeste.

7 esparru, 107 argazki

Erakusketa osatzen duten 107 argazkiak ordena kronologikoan aurkezten dira, gaien arabera zazpi ataletan sailkatuta. Erakusketak moda-argazkilaritzaren aro modernoaren sorreratik —xx. mendearen hasieran— gaur egun arteko tartea hartzen du, moda-argazkilaritzak Espainian izandako bilakaeraren ikuspegi zabala emanez.



Pere Casas Abarca, 1902–1905

Argazkilaritza eta moda, moda-argazkilaritza baino lehen

Pere Casas Abarca izan zen sortzaile modernista bakanetako bat publizitatearen alorrean argazkilaritzarekin esperimentatu zuena; emakume eredu berri bat hartu zuen abiapuntu, jarrera modernoa zuena, eta hori haren jantzeko moduak irudikatzen zuen. Bere argazkiak ez ziren moda sustatzeko eginak, baina moda-argazkilaritzaren etorkizuneko lerroak goratzen zituen, jantzien deskribapen hutsetik harago doazen atmosferak eta bizi-estiloak erakusten baititu. Haren irudiak Gustav Klimtek eta Mariano Fortuny egin zituztenekin bat datoz, eta horiek har daitezke, hain zuzen ere, moda-argazkilaritza modernoaren sorburu gisa.

Ikuspuntu berria

1930ean goi-jantzigintza finkatzeak bat egin zuen hainbat aldizkarik, esate baterako, *D'Ací i D'Allà*, *Tricornio*, *Las cuatro estaciones*, *Imatges* edo *Fordek* sartu zuten lengoia bisualaren berrikuntzarekin. Argitalpen horiek bizitza modernoa hedatzeko plataformak izan ziren, eta hainbat markak, Santa Eulalia, El Dique Flotante, Badía edo La Innovaciónek esate baterako, beren sorkuntzak sustatzeko hautatu zituzten.

Garai horretan sortu zen Espainiako moda-argazkilarien lehen belaunaldia: gazte talde bat —horien artean zeuden Josep Sala, Ramón Batlles, Compal, Samuel Suñé eta Antoni Ollé Pinell— ikuspuntu berria deiturikoaren baliabide estetikoak erabili zituztenak: simetria ardatza mugitzea,



Oriol Maspons, 1956

fragmentazioa, ezohiko ikuspuntuak... Beraien argazkiak erabili zituzten artikulua ilustratu eta goi-jantzigintzako sortzaileen publizitatea egiteko, eta Espainian modernitatea hedatu zuten aipatutako aldizkari horietan.

Barnealdeak eta kanpoaldeak

Espainian moda-argazkilaritzari ikusgarritasuna eman zion lehen argitalpen handiak, hau da, *Alta Costurako* (Bartzelona 1945-1969) orrialdeek, erakusten digute gerraoste luze hartan zer ideal femenino erabili ziren emakumezkoak seduzitzeko.

1940ko hamarkadan, nortasun handiko emakume seduktore eta misteriotsuaren irudia proiektatu zen, zinemako izar famatuenekin loturikoa. Argazkilariek Hollywoodeko erretratugile handien estetika erabili zuten, eta barnealdeez eta argiztapenez baliatu ziren atmosfera dramatiko eta biziak sortzeko, horrela, edertasuna eta sentsualitatea nabarmendu zitezten eta misterioa eman ziezaion, modeloak egunerokotasunetik urrunarazteko.

Berrogeiko hamarkadaren amaieraren eta 1950eko hamarkadaren artean, moda-editore eta argazkilari handienek hiri-kanpoaldeetara jo zuten lurrekoagoa, modernoa, dotorea eta aktiboa zen emakume baten irudia emateko, zeinak Christian Diorrek proposaturiko *New Looka* zuen oinarrian.

Mugimenduak

1960ko hamarkadan, gazteek osatutako hainbat mugimendu artistiko eta kontrakultural zein azpitalde urbano sortu ziren –pop artea, *modak* eta *hippyak*, besteak beste–. Gatazka belikoen zein arraza, gizarte eta sexu desberdintasunen aurkako jarrera hartzeak une hartako eztabaidak markatu zituen eta erotik aldatu zuen modaren ikusmoldea.

Mugimenduaren kontzeptua oso presente egon zen hirurogeiko urteetako moda-argazkilaritzan. Argazkilariak dantzarekin lotutako gaiak sartzen hasi ziren, eta modeloen jarrera eta keinuek dantzarienak antzeratzen zituzten. Era berean, berehalako argazkilaritzaren estetika berreskuratu zuten, zeinak 1930eko eta 1940ko hamarkadetakako argazkilari batzuek irudikatutako mugimendua erakusten baitzuen.

Antzeppenak eta fantasiak

Duen autonomismoa, gogora ekartzeko gaitasuna eta naturalismoa dela eta, argazkilaritza hartu izan da erregistratzeko baliabiderik errealistenetakotzat. Ezaugarri horiek egiten dute, halaber, errealitatea iraultzeko bitarteko egoki.

Moda-argazkilaritzan beti sartzen da eskua errealitatean, eta simulatuta edo birsortuta egon ohi da. Argazkilariak antzeppenetatik, proiektioetatik, abiatzen dira errealitate anplifikatu, idealizatu eta aparteko batera hurbiltzeko xedez; ideiak eta zirrarak helarazteko, seduzitzeko.

Juana Biarnés, 1960–1970





Bela Adler & Salvador Fresneda, 2009

Alor horretako argazkilariek irudi futuristak, magikoak, onirikoak edo probokatzaileak sortzen dituzte zinemarekin eta literaturarekin lotutako narrazioetatik, estetika surrealistatik abiatuta. Fantasia erotikoetara hurbilarazten gaituzte, eta ohikoa ezohiko bihurtzen duten larritasunak, beldurrak eta tentsioak erakusten dizkigute.

Identitatea eta diferentzia

Erretratua da moda-aldizkarietan ikusgarritasun handiena duen argazkilaritza-praktiketarik bat, baita sare sozialetan gehien erabiltzen denetako bat ere. Erretratuaren ikuskera aldatuz joan da. xx. mendearen zati handi batean, modaren sustapenean erretratuak nagusitu ziren, dotoretasun eta botere-adierazgarri gisa. 1960ko hamarkadan hasi ziren aldaketa erradikalek aukera eman zuten erretratuetara beste era batera hurbiltzeko, eta bestearen irudia, zentzu zabalean, ikusgarri izaten hasi zen.

Moda-editore eta argazkilariek identitatea eta diferentzia kontzeptuekin hasi ziren jolasean, haien sorkuntzak pentsamendu korronte berriekin lotzeko helburuarekin. Beraien argazkiak klasearen, sexuaren, erlijioaren, gustuaren edo kulturaren inguruan ezarritako kontzeptuekin lotzen dira edo horiekin hausten dute, eta egin ziren garaian zeuden ikusmoldeak eta eztabaidak irudiztatzen dituzte.

Paisaiak

Paisaia urbanoa edo naturala, natura eta artifizioa; oinarritzko kontzeptuak dira paisaiaren kontzeptuaren inguruan egin diren eztabaidetan, eta oso presente egon dira moda-argazkilaritzan. xx. mendearen zati handi batean, imajinario kolektiboko paisaia urbano nagusia New Yorkekoa izan zen. Moda-argazkilariek hiriko bizitza eta etxe orratzak behin eta berriz erabili izan dituzte agertoki natural gisa, aurrerabidearen, arrakastaren eta modernitatearen sinbolo gisa.

Teoria berriek, ekologiak eta ingurumenarekiko sentsibilitateak bide eman dute moda- eta publizitate-argazkilariek humanizatu gabeko gune naturaletara, eremu basati, idor eta basamortukoetara eta erreferente tenporal, kultural eta sozialik gabekoetara jo zezaten; etorkizunekoak edo iraganekoak izan daitezkeen paisaiak dira horiek. Eremu hutsak, anbiguoak, editore eta argazkilarien proiektzioetatik abiatuta erreferentez, ideiaz eta kontzeptuz betetzen direnak.

Argazkilariak

1900–1960

Ramon Batlles (Bartzelona, 1901–1983)
Camisans
Pere Casas Abarca (Bartzelona 1875–1958)
Compal
Josep Compté (Bartzelona 1910–1987)
Juan Gyenes, (Madril, 1912–1995)
Hortolà
Jafer
Man
Antoni Ollé (Bartzelona, 1897–1981)
Paul M. Pietzch
Josep Sala (Bartzelona, 1896–1962)
Samuel Suñé (Bartzelona, 1888–1964)

Ramon Batlles, 1934



1960–2013

Adler & Fresneda (Bèla Adler, Bartzelona, 1959/
Salvador Fresneda, Bartzelona, 1957)
Pep Àvila (Bartzelona, 1968)
Antoni Bernad (Bartzelona, 1944)
Juana Biarnés (Madril, 1935)
Alejandro Cabrera (Madril, 1954)
Biel Capllonch (Mallorca, 1964)
Ferran Casanova (Bartzelona, 1979)
Manel Esclusa (Vic, 1952)
Maria Espeus (Suecia, 1949)
José Manuel Ferrater (Bartzelona, 1948)
Enric Galcerán (Bartzelona, 1975)
Sergi Jasanada (Bartzelona, 1967)
Virgili Jubero (Bartzelona, 1984)
Oriol Maspons (Bartzelona, 1928–2013)
Esperanza Moya (Jaén, 1980)
Xevi Muntané (Bartzelona, 1977)
Manuel Outumuro (Ourense, 1949)
Sergi Pons (Bartzelona, 1970)
Eugenio Recuenco (Madril, 1968)
Daniel Riera (Olot, 1970)
Carles Roig (Badalona, 1961)
César Segarra (Bartzelona, 1986)
Javier Vallhonrat (Madril, 1953)
Txema Yeste (Bartzelona, 1972)

Ikusizko dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat sarbidea duten irudiak

Ikusizko dibertsitate funtzionala duten pertsonen erakusketaren edukiaz gozatzeko aukera izango dute erakusketaren edukian integratutako hainbat zerbitzu eta baliabideri esker, besteak beste, xafla erliebedunak edo braillean egindakoak, autodeskribapenak eta bisita gidatu irisgarriak.

Beharrizan bereziak dituzten pertsonen bideratutako programaren bitartez, eta Kutxa Fundazioarekin elkarlanean, museoak erraztu egiten die berak zaintzen duen ondareko sarbidea eta inklusioa beharrizan espezifikoak dituzten pertsonen osatutako taldeei.

Eugenio Recuenco, 2005



Erakusketaren inguruko jarduerak

Cristóbal Balenciaga Museoak, Kutxa Kultur Modarekin elkarlanean, erakusketan sartutako ondorioetan sakontzeko aukera emango duen jardunaldia aurkeztuko du Abenduaren 1ean, erakusketa-proiektuan parte hartu duten hainbat espezialistaren ikerlanaren fruitu.

1. **Silvia Ventosa**

Bartzelonako Museu del Dissenyko Ehungintza eta Moda Saileko arduraduna eta erakusketaren komisario laguntzailea.
Ikuspuntua: Bilduma.

2. **Juan Navarro**

Erakusketaren komisarioa.
Ikuspuntua: Erakusketa.

3. **Daniel Riera**

Argazkilaria.
Ikuspegia: Gaur egungo moda-argazkilaritza.

Prentsarentzako irudiak

Argazkilaritza eta moda,
moda-argazkilaritzaren
aurretik



Pere Casas Abarca (1875-1958)
1902-1903
Zilar-gelatina paper barituan 1902-1903ko
inprimaketa
11,4 x 8,4 cm
Erosketa, 2013
MTIB 4.174/14

Ikuspuntu berria



Ramón Batlles (1901-1985)
Bartzelona, 1934
*El Dique Flotatanter*en konjuntua
Zilar-gelatina paper barituan, 1934ko
inprimaketa
22,2 x 16,4 cm
Erosketax, 2013
MTIB 4.195/14

Barnealdeak
eta kanpoaldeak




Juan Gyenes (1912-1995)
Madril, 1950
Rosina-ren soinekoa
Zilar-gelatina paper barituan,
1950eko inprimaketa
MDB2

Barnealdeak
eta kanpoaldeak



Oriol Maspons (1928-2015)
Bartzelona, 1956
VSanta Eulaliaren soinekoa
Zilar-gelatina paper barituan, 2012ko
inprimaketa
40,7 x 40,7 cm
Dohaintza: Oriol Maspons, 2015
MTIB 3.895/15

Mugimenduak



Oriol Maspons (1928-2015)
Bartzelona, 1966
Pertegazen konjuntua
Zilar-gelatina paper barituan, 2012ko
inprimaketa
50,2 x 40,5 cm
Dohaintza: Oriol Maspons, 2015
MTIB 3.885/15

Mugimenduak



Antoni Bernad (1944)
Bartzelona, 1968
Lambda paper barituan, 2012ko
inprimaketa
94,4 x 70,3 cm
Dohaintza: Antoni Bernad, 2012
MTIB 3.856/12

Mugimenduak




Juana Biarnés (1935)
Madril, 1960-1970
Miguel Ruedaren soinekoa
Zilar-gelatina paper baritatu,
1960-1970eko inprimaketa
24 x 18,1 cm
Erosketa, 2015
MTIB 4.210/14

Eszenaratzeak eta fantasiak



Eugenio Recuenco (1968)
La cenicienta, 2005
Giclée kotoizko Ultra Smooth Fine Art
paperean, 2012ko inprimaketa
43,2 x 56,5 cm
Dohaintza: Eugenio Recuenco, 2015
MTIB 5.879/15

Eszenaratzeak eta fantasiak



Txema Yeste (1972)
There Somewhere
Ebroren Delta, 2011
Giclée Photo Rag Baryta paperean, 2012ko
inprimaketa
102,9 x 67,9 cm
Dohaintza: Txema Yeste, 2012
MTIB 5.822/12

Identitatea eta diferentzia



Enric Galceran (1973)
Bali, 2006
Giclée Fine Art Baryta paperean, 2015ko
inprimaketa
77 x 105,2 cm
Dohaintza: Enric Galceran, 2015
MTIB 4.045/13

Identitatea eta diferentzia



Bèla Adler & Salvador Fresneda
(1959 y 1957)
Bartzelona, 2009
Giclée Photo Rag paperean, 2012ko
inprimaketa
20 x 87 cm
Dohaintza: Adler & Fresneda, 2015
MTIB 4.006/13

Paisaiak



Manuel Outumuro (1949)
Tokio, 1995
Giclée Fine Art paperean, 2010eko
inprimaketa
50,1 x 40,1 cm
Dohaintza: Manuel Outumuro, 2010
MTIB 5.629/10

Paisaiak



Txema Yeste (1972)
Gala
Cadaqués, 2009
Giclée Photo Rag Baryta paperean, 2012ko
inprimaketa
47,1 x 70,6 cm
Dohaintza: Txema Yeste, 2012
MTIB 5.807/12

Cristóbal Balenciaga Museoa



Cristóbal Balenciaga Museoa eta Aldamar jauregia. © Cristóbal Balenciaga Museoa

Cristóbal Balenciaga museoak 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da –3.000 pieza inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker–, eta hedadura formal eta kronologiko handia du –jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako–; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak xx. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Bunny Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Rethy printzesa, Grace Kelly edota Madame Bricardek, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.